



## TOLOSAKO UDALA

### TOLOSAKO UDALAREN ETA GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAREN ARTEKO

### HITZARMENA

#### TOLOSAN EUSKARAREN ERABILERAREN HAINBAT NORMALIZAZIO-LAN LANKIDETZAZ BURUTZEKO 2014. URTETIK 2017. URTERA.

Tolosan, bi mila eta hamalauko martxoaren hamarrean.

#### BILDURIK

Batetik, Ibai Iriarte San Vicente jauna, NAN: 72.487.486-L, TOLOSAKO UDALeko alkatea, haren izenean eta ordez diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Eta bestetik, Xabier Saizar Ingidua jauna, NAN: 15.997.042-J, GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAREN izenean eta beronen ordezkari gisa.

Bi alderdiok, hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

#### AITORTZEN DUTE:

Galtzaundi Euskara Taldea euskararen erabileraren alorrean hainbat normalizazio-lan burutzen ari dela eta hauen guztiaren onuradun Tolosako herria dela.

Galtzaundi Euskara Taldea irabazi asmorik gabeko elkartea dela, eta komenigarria dela egiten duen lan eskergari behar bezalako tratamendua ematen jarraitzea eta, bide batez, honen geroa ziurtatu eta sendotzea.

Arestian aipatutakoa horrela izanik, HITZARMEN hau sinatu dute, ondorengo klausulen arabera.

#### KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmen honen helburua da Galtzaundi Euskara Taldeak eta Tolosako Udalak, elkarlanean eta Galtzaundiren ardurapean, 2014. urtetik 2017. urtera bitartean, biak barne, burutuko dituzten euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea.

BIGARRENA.- Hitzarmen honen bidez, ondoren azaltzen diren jarduerak eta normalizazio-lanak lagunduko ditu diruz Tolosako Udalak, eta Galtzaundi Euskara Taldeak hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera burutuko ditu lanok. Ekimen-zerrenda irekia da eta beste ekintza batzuk ere elkarlanean antolatu eta diruz laguntzeko aukera izango da, beti ere, Tolosako Udalaren eta Galtzaundi Euskara Taldearen artean osatuko den lan-taldeak adostutako proiektua izanez gero.

Komunikazioa, elkarlana eta sektore desberdinetako euskalduntze planak ardatz izango dituen 4 urtera begirako plangintza lagunduko da diruz. Plangintza horrek ondoko ezaugarriak izango ditu:

- 1.- Euskararen erabilera sustatzeko plangintzak euskaraz bizitzeko nahia gauzatzeko. Honakoak izango dira eragin esparruak: kirola, elkarteak oro har, gizarte mugimenduak, 3. sektorea, enpresak eta norbanakoak. Huetan diagnostikoak egingo dira, motibazio saioak bideratu, proposamenak elkarlanean landu eta gizarteratu. Enpresa munduari dagokionean lanketa berezia izango da, enpresa munduan eragiteko helburuarekin, enpresari euskaltzale, sindikatu eta ikastetxeen artean mahaia sortzeko ahalegina egingo da. Norbanakoen alorrean, berriz, Mintzalaguna egitasmoa dinamizatuko du Galtzaundik.
- 2.- Komunikazioa: Euskarak Tolosari balio erantsia ematen dio. Euskarak batu egiten gaitu. "Tolosa, euskararen hiria" marka elkarlanean sustatuko du Galtzaundik (komunikazio bitartekoak sortu: bloga, twitter-a, ikusentzunezkoak, display-a..., Tlseh Foruma, Atariarekiko koordinazioa...).
- 3.- Elkarlana: norbanako eta eragileak aktibatu. Herritarrak elkartzeko jarduerak elkarlanean bideratzeko lanketa egingo du. Bide horretan lanketa berezia egingo du kultur eragileak eta kirol entitateak ere euskararen sustatzaile izateko borondatearekin. Hezkuntza alorrari dagokionean, berriz, Euskararen Mahaiaren koordinazio eta dinamizazio lanak egingo ditu, eraginkortasuna helburu, euskaraz ez dakitenenganako zubiak eraikitzeko, hizkuntz transmisioa lantzeko eta gazteen motibazioan eragiteko helburuarekin.
- 4.- Tlseh Foruma: Esparru desberdinetako eragileen ekarpenak herritarren aurrean plazaratzeko gune honetan hitzaldiak, mahainguruak, elkarrizketak, tailerrak... antolatuko ditu Galtzaundik.

Aipatutako lanarengatik 54.000,00 €-ko diru laguntza emango dio Tolosako Udalak Galtzaundi Euskara Taldeari 2014. urtean, eta urtez urte 2017a arte, KPIa igota emango zaio diru laguntza.

HIRUGARRENA.- Tolosako Udalaren eta Galtzaundi Euskara Taldearen ordezkari osatutako lan-taldeak bilera egingo du urtean hiruzpalau aldiz. Batetik, hitzartutakoaren jarraipena gauzatzeko, hau da, orain artean gertatu den moduan, hitzartutakoa objetibotasun, pluraltasun eta egokitasunez betetzen ari den aztertzeko. Eta bestetik, dokumentu honetako

bigarren artikuluan ere aipatzen den moduan, hizkuntza normalizazioaren alorrean aurrerabideak aztertu eta beharrezkoak izan daitezkeen egitasmo berriak abian jartzeko.

LAUGARRENA.- Aipatutako diru laguntza honela emango da:

% 60a, urtero, apirila baino lehen jasoko du Galtzaundik, eta falta den %40a ondoren agertzen den diru laguntza zuritzeko dokumentazioa ekarritakoan. Diru laguntzaren lehen zatia jasotzeko Galtzaundi Euskara Taldeak ez du diru laguntza zuritzeko dokumentaziorik ekarri beharko, aurrerakin moduan emango baitio diru laguntza Udalak egitasmoak lehenbailehen abian jartzeko. Bigarren zatia jaso baino lehen, diruz lagundutako jardueren memoria eta hurrengo urteko egitasmo zehatza, diru-kontuen balantzea, zergak eta gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak, eta diru laguntza osoa zuritzeko adinako fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak ekarriko ditu.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna agertzeko, hitzarmen honen hiru ale sinatu dituzte bildutakoek, hasieran aipatutako toki eta egunean.

Ibai Iriarte San Vicente

Xabier Saizar Ingidua

Alkatea

GALTZAUNDIren ordezkaria

Nire aurrean, idazkaria

Jose Luis Unanue Ugalde